



OBRA ETA MANTENTZE KONTRATUAK

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIAN TXERTATZEKOAK

Hizkuntza gaitasunari buruz

Ez zaie eskatuko

Hizkuntzen erabilerari buruz

"Enpresa adjudikaziodunak, zerbitzua ematerakoan, Udalak bere hizkuntzazko jarduera arautzeko dituen planen arabera jokatu du.

Beraz, enpresa adjudikaziodunak zerbitzua ematerakoan herritarren edo udalaren esku jartzen dituen agiri, txartel, ohar eta gainerako idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira, eta euskarari emango dio lehentasuna.

Eta gainera:

- Proiektuak, txostenak eta bestelako idatzi luzeak euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera.
- Udaleko atal elebidunekin ahoz nahiz idatziz dituen harremanak euskaraz egin ahal izateko, Udalarekin harremanak dituzten langileak elebidunak izango dira."

Betebeharren jarraipenari eta ez betetzeari buruz

"Hizkuntza-betebehar horiek betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egitea kontratazio-organoari dagokio, baina kontratazioa eragin duen udal departamentuaren ardura izango da, Euskara Zerbitzuarekin lankidetzan, beharrezkoa den informazioa kontratazio-organoaren eskuetan jartzea. Hizkuntza-betebehar horiek behin eta berriz urratzea nahiko arrazoi izango da kontratua deuseztatzeko."